

Gai ordena:

- 1.- Energia aztertzeke ekintzak**
- 2.- Beko Kaleko plan partziala**
- 3.- Gai pendienteak**

1.- Energia aztertzeke ekintzak

X.U. ikasleak karrera amaierako proiektuan Itsasondoko hainbat eraikin publikotako energia kontsumoa aztertu du: eskola, gaztelekua, jubilatuen lokala eta osasun etxea. Gaurko bileran lortutako ondorioak azaldu ditu eta laburbilduz energia aurrezteko egin daitezkeen lanak ondorengoak dira:

- Kontratu batzuk aldatu, kontratatutako potentzia jaitsiz eta 2.0A motatik 2.0DHara pasaz.
- Jubilatueneko bonbilak potentzia gutxiagoko batzuegatik aldatu
- "Stand by" ak saihestu.

Guztira urtean aurreztu daitezkeen kantitate 400 € ingurukoa da.

2.- Beko Kaleko plan partziala

Beko Kanpako topografikoa eginda dago, eta hurrengo pausoa Plan Partziala egitea izango litzateke. Beko Kale bukaerako sarrera berria izango da proiektu honetako punturik garrantzitsuen eta, gai hau errepidetako menpe dagoelako, GFA errepidetakoekin kontaktuak jartzea erabaki da ze irtenbide egin daitezkeen jakin ahal izateko. Era berean, trenaren geltoki inguruak Beko Kaleko proiektuan sartzea ere proposatu da.

3.- Bizikleta gordailua

Bizikleta gordailuaren inguruko informazioa banatu da eta bi pertsonak eman dute izena. Datorren urterako uztea erabaki da. Jostailuen gordeleku izan daitezkeen proposatu eta eta gaia aztertzekeotan geratu da.

4.- Agenda 21

2011ean egindako programaren konpromisoak zeintzuk izan ziren irakurri eta programa berrirako proposamenak aztertu dira. Gai hau hurrengo bileran landuko da.

5.- Urkiko proiektua

Urkiko aterpetxeak herrian egiten diren txango eta ibilbideekin harreman zuzena izan dezakeela uste da eta ahal den neurrian proiektu hau bultzatzea proposatu da. Urkiko elkarte eraberritzeko egindako proiektua aztertuko da ea egungo egoerara moldatzen den. Elkartearen egungo egoera zein den ikusteko, aste santuan bisitan joateko egun bat zehaztuko da.